



ALBOAN

# Etika -eta gizarte-hezkuntza irakasgairako material osagarria

## DBHko 4. maila



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## Hezkuntza baliabideak ALBOAN

...

17. Garepenaren trenak. (2008)
18. Milurtekoko Garapen Helburuen Mandalak. (2008)
19. Pertsona errefuxiatuen begitarteak eta oinatzak. Jarduera-gida. Ikus-entzunezkoa materiala. (2007)
20. Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria. Lehen Hezkuntza. (2011)
21. Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgairako material osagarria. DBHko 1., 2. edo 3. maila. (2011)
22. Etika- eta gizarte-hezkuntza irakasgairako material osagarria. DBHko 4. maila. (2011)

# Etika- eta gizarte-hezkuntza irakasgairako material osagarria

## DBHko 4. maila



Argitaratzailea:

**ALBOAN**

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao  
Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938  
alboanbi@alboan.org

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea  
Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308  
alboanna@alboan.org

Erronda kalea, 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia  
Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267  
alboangi@alboan.org

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Gasteiz  
Tel.: 945 202 676 • Faxe: 945 202 676  
alboanar@alboan.org  
[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

Egilea: **ALBOAN**

Data: iraila 2011

Itzulpena: Elhuyar

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

**Lege-gordailua:**

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	5
<b>2. Nola erabili DBH-ko 4. mailarako material osagarria</b>	9
2.1. Etika- eta gizarte-hezkuntza irakasgaiko zer gai-multzo landu daitezke material honetako jarduerekin?	9
2.2. Nola aurkitu jarduerak? Adibide praktikoa	11 12
2.3. Jatorrizko zer baliabide erabili dira jarduera-gida egiteko?	19
<b>3. Jarduera-gida</b>	21
1. Atala. Eduki komunak	21
2. Atala. Nortasuna eta alteritatea. Hezkuntza afektibo-emozionala	27
3. Atala. Teoria etikoak. Giza eskubideak	32
4. Atala. Etika eta politika. Demokrazia. Balio konstituzionalak	35
5. Atala. Egungo munduko arazo sozialak	39
6. Atala. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna	44
7. Atala (Nafarroa). Gizarte kulturantzuna	46
<b>4. Material osagarrien eranskina</b>	49



# 1. Sarrera

Heztea, gaur egun, erronka bat da, beti izan den bezalaxe. Ahalik eta erantzun egokiena eman behar diogu erronka horri, hartara beste mundu posible bat eraiki ahal izan dezagun.

Hiritar kritikoak eta beste mundu posible bat eraikitzeke konpromisoa dutenak heztea da, gaur egun, hezkuntzaren erronka hori.

**Hiritartasuna** da talde bateko sentitzea eta pertsonen eta erakundeek konpromisoa izatea guztien onerako jarduteko eta guztiak babesteko, bereziki ahulenei begira. Hiritartasuna protagonista bihurtzen da gizarte konprometitu eta bidezko bat eraikitzeke orduan. Hiritartasuna estatu jakinen mugez eta legez-kotasunaz haraindi doa. Munduko hiritarrez dihardugu.

**Prestakuntza** da banakoek eta taldeek gizarte-errealitatean eragiteke duten gaitasuna zabaltzea, hezkuntza- eta gaitze-prozesuen bidez. Prozesu horren bidez, banakoa garatzeko eta gizartean eta politikan parte hartzeko ezinbestekoak diren jarrerak eta gaitasunak lortzen dira.

ALBOANek **hiritar arduratsuak**, konprometituak eta inklusiboak prestatzen lagundu nahi du, eta, horretarako, bidegabekeriak sortzen dituen kultura-eredu menderatzailearentzat alternatiba inklusiboak emango dituen **proposamenak eskaintzen ditugu hezkuntzarako, komunikaziorako eta gizarte parte-hartzerako.**

Hiritartasunerako Hezkuntza bat, zeinak:

- **Eskubide** eta betebeharren, parte-hartze sozialaren eta bakearen kulturaren alde egiten baitu bereziki (kultura-artekotasuna, bakea, giza eskubideak, etab.).
- **Gizon-emakumeen** arteko berdintasunaren alde egiten baitu, eta, horretarako, kontuan hartzen du genero-ekitatea hezkuntza-materialetan,

neskatila guztiek hezkuntzarako bidezko sarbidea izan dezatela aldarrikatzen du eta bizitzako eremu publiko eta pribatu guztietan gizon-ema-kumeen arteko genero-harreman bidezkoagoak sustatzen ditu.

- **Eragin** politikoaren eta sareetako parte hartzearen bidez, Hegoaldean baztertutako kolektiboen bizitzari eragiten dioten erabaki-eremu politikoetan eragiten baitu; horretarako, guk dugun hiritartasunerako hezkuntzaren ikuskera eta hura sustatzeko nahia gurekin partekatzen dituzten erakundeekin hitzarmenak egiten ditugu.
- **Eraginkortasunez** ematen baitu gizartea aldatzeko eta gure ingurunean gizartearen atxikimendu handiagoa eta agerpen publikoa lortzeko egiten dugun lanaren berri.

Gure ustez, munduko egiatzko hiritarrak heztea ezin da lortu **irakasgai bakar batean**, baina Etika- eta gizarte-hezkuntza irakasgaia hezkuntza-aukera bikaina da, eta horretaz baliatu behar dugu aukera hori garatzeko.

Curriculum ofizialetik abiatu gara, eta curriculum hori “elkartasuna sustatzen duten jarrerekin, prozedurekin eta edukiekin lotu dugu, eta elkartasuna sortzen dute jarreraz, prozeduraz eta edukiz josi dugu”. Gure ustez, Elkartasunerako hezkuntza, benetan eraginkorra izango bada, ikasgelako eguneroko bizi-moduan islatu behar da, eta curriculumean sartuta egon behar du. Izan ere, “hiritartasuna lortzeko, legea baino gehiago behar da... agintaritza-politikoaren araberrako hiritartasun-definizioaren ordez beste hiritartasun-eredu bat sortzen ari da, alde soziala garatzen duena, askotariko egoeratan elkarbizitza sustatzen duena”.

**“Hiritartasun aktibo eta arduratsua, kritikoa eta kultura anitzekoa** eraikitzearen alde gaude, **tresna** bat izan dadin:

- *Demokrazia sendotzeko*
- *Gizarteratzen eta bazterkeriaren aurka borrokatzen laguntzeko*
- *Ardura soziala sustatzeko*
- *Gure kulturarekiko irizpide kritikoa izateko*
- *Aniztasuna ondasun publiko gisa baloratzeko*
- *Kulturen arteko elkarrizketa bultzatzeko*



Eta **personengan** ezaugarri hauek **sustatzeko**:

- *Parte-hartzea, balore gisa*
- *Giza eskubideen aldeko borroka*
- *Presentzia handiagoa eremu publikoan*
- *Hiritarren ahalduntzea*
- *Konpromiso soziala*
- *Norberaren autonomia*
- *Berreraikuntza soziala*
- *Aldaketa eragitea*
- *Aniztasuna, hiritarren balio gisa*
- *Kulturen arteko gaitasunak*

*(Concha MAIZTEGUI eta Marlen EIZAGUIRRE: Ciudadanía y educación: de la teoría a la práctica, Flor Cabrera, 2002, 29. or.)*

**ALBOANek**, bere lanean, material didaktikoak sortu ditu, eta horregatik, irakasleek Etika- eta gizarte-hezkuntza irakasgaien erabil ditzaketan jarduerak eskaintzen ditugu.

Material honetan, hezkuntza-proposamenak gida moduan aurkezten ditugu, irakasleek Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko zikloetako irakasgaietan gai-multzoak lantzeko material osagarriak izan ditzaten. Jarduerak antolatzeke garaian, kontuan izan dugu irakasgaiaren programazioa nola orientatua dagoen BOEn, NAOen eta EHAAn.

Gidarekin batera, CD-DVD bat dago, eta han jaso dira gida honetarako jarduerak aukeratzeko erabili ditugun baliabideak.

Azkenik, argitalpenaren amaierako eranskinean, Hiritartasunerako Hezkuntza lantzeko **ALBOANek** dituen proposamen gehiago aurkituko dituzu.

- **Proposamen batzuk sarean daude:** [www.alboan.org](http://www.alboan.org)
- **Beste proposamen batzuk, berriz, Bilboko, Iruñeko, Donostiako eta Gasteizko egoitzetan aurkituko dituzu.**



## 2. Nola erabili DBH-KO 4. mailarako material osagarria

Etika- eta gizarte-hezkuntza irakasgairako material osagarri honetan, jardue-  
ra-multzo bat topatuko duzu, metodologia aktibo eta parte-hartzailean oina-  
rritua. Jarduera horiek **ALBOANek** azken urteotan irakasleen lana errazteko  
prestatu dituen material didaktiko guztien artean aukeratu dira.

Hemen aukeratutako jarduerak garatu ahal izateko, **ALBOANek** material ho-  
nekin batera aurkeztutako “Hezkuntza-materialak” CD-DVDra jo behar duzu.

### 2.1. Etika- eta gizarte-hezkuntza irakasgaiko zer gai-multzo landu daitezke material honetako jardurekin?<sup>1</sup>

#### 1. ATALA. Eduki komunak

- a. Norberaren eta besteen sentimenduez ohartzea, gatazkak eztabaidaren eta negoziazioen bidez konpontzea
  - Gatazkak eztabaidaren eta negoziazioaren bidez lantzea. Bitartekaritza.\*
- b. Inguru hurbileko edo mundu osoko arazoan gaineko eztabaidak prestatzea eta aurrera eramatea, gaurkotasun-gaiei eta etika- eta gizarte-auziei buruzkoak, dauden jarrerak eta alternatibak kontuan hartuta.

<sup>1</sup> Lehenengo 6 blokeak BOEn, NAOen eta EHAAren argitaratutakorekin bat datoz. NAOen 7 blokea azaltzen da, Nafarroan garatzen dena. EHAAren Euskadin garatzeko azalduko edukiei izartxo baten marka jarri diogu.

c. Gaurkotasuneko gai edo gertaera baten inguruan komunikabideek emandako informazioaren azterketa konparatiboa eta ebaluazio kritikoa.

d. Bidegabekeriez eta desberdintasunez ohartzea. Bizimodu bidezkoagoak bilatzeko eta izateko nahia. Ikastetxean bertan zein kanpoan, elkartasuneko proiektuetan parte-hartzea.

## 2. ATALA. Nortasuna eta alteritatea. Hezkuntza afektibo-emozionala

a. Norberaren nortasuna, askatasuna eta erantzukizuna. Gizakiaren galderak Desberdintasun pertsonalekiko errespetua.

- Bestelako bizimoduekiko eta pertsonen eskubideekiko errespetua. \*

b. Inteligentzia, sentimenduak eta emozioak. Pertsonen arteko harremanak. Pertsonen arteko gatazkak konpontzeko indarkeria erabiltzea baztertzea.

## 3. ATALA. Teoria etikoak. Giza eskubideak

a. Giza eskubideak giza portaerarentzako erreferentzia unibertsal gisa. Gizarte- eta politika-eskubideak. Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Giza eskubideen eboluzioa, interpretazioak eta defentsa eraginkorra.

b. Desberdintasun sozialak eta kulturalak. Intolerantziari, bidegabekeriari eta bazterkeriari aurka egitea.

## 4. ATALA. Etika eta politika. Demokrazia. Balio konstituzionalak

a. Demokrazia eta hiritarren parte-hartzea.

## 5. ATALA. Egungo munduko arazo sozialak

a. Globalizazioa eta garapen-arazoak. Boterea eta komunikabideak.

b. Hiritartasun globala. Giza garapen jasangarria. Lankidetzeta. Giza eskubideen defentsarekin konprometitutako mugimenduak (EAEkoa bezalakoa).

- Ingurumen-krisia: garapen jasangarriaren aldeko borroka.\*

c. Gatazka armatuak eta haiek konpontzeko, nazioarteko komunitateak egiten duena. Bakea mantentzeko, ezartzeko eta sendotzeko lanak. Defentsa bakearen zerbitzura. Bakearen kultura.

## 6. ATALA. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna

a. Pertsonen duintasuna. Berdintasuna askatasunean eta aniztasunean.

b. Emakumeen diskriminazioaren kausak eta eragileak. Eskubide-berdintasuna eta benetako berdintasuna.

## 7. ATALA (Nafarroa). Gizarte kulturantzina

- |   |
|---|
| a. Nortasun kulturala. Nortasun indibiduala eta kolektiboa. |
| b. Desberdintasun kulturalak eta immigrazioa.               |
| c. Tolerantzia eta kultura-artekotasuna.                    |

### 2.2. Nola aurkitu jarduerak?

Materiala prestatzeko garaian, jarduerak hiru bilaketa-mota erabiliz lortzeko moduan prestatu ditugu. Jarduera bakoitzari buruz emandako informazio-kategorietatik abiatuz, gure beharretara gehien egokitzen direnak aukeratu ditzakegu, eta, aukeratu ondoren, CD-DVDan bilatu, urrats jakin batzuk eginez. Erabiltzen dugun kategoriaren arabera, bilaketa sinplea (lehenengo aukera), bilaketa azkarra (bigarren aukera) edo atalen arabeko bilaketa (hirugarren aukera) aukeratu beharko dugu.

Jarraian, jarduera baten bilaketaren adibide praktikoa eginez azalduko ditugu bilaketa-aukerak eta jarduera aurkitzeko urratsak.

**Adibide praktikoa:** Nola bilatu “Ezagutzen dudan eta ez dudan lagun maitea” ariketa?

*Hau da ariketaren inguruan interesatzen zaigun informazioa eta gidak ematen diguna:<sup>2</sup>*



**Izenburua:**

**Ezagutzen dudan eta ez dudan lagun maitea**



**Jardueraren deskribapena:**

Zer da bakea eta zer baliorekin lotzen dugu hitz hori? Imajina dezakegu gure bizitza gudan dagoen herrialde batean? Zer esango genioke egoera hori bizitzen duen pertsona bati? Idatz dezagun eskutitz bat, pertsona hori ezagutzeko.



**Iturria:**

Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



**Gaia:**

Gatazkek eta bakea/Elkartasuna.



**Iraupena:**

50 minutu.

<sup>2</sup> Informazioan ez dugu adinik gehitu material hontako jarduera guztiak 14 urtetik gorako ikasleentzat zuzenduak direlako.

1. **Bilaketa sinplea:** aukeratutako jardueraren izenburua idatzi eta haren deskribapena ikusteko edo interesatzen zaigun gai bat idatzi eta materialek gai horri buruz ematen dizkiguten aukera guztiak ikusteko erabil dezakegu.

Titulua bilatuko dugu: **Ezagutzen dudan eta ez dudan lagun maitea**

Titulua	Deskribapena
Ezagutzen dudan eta ez dudan lagun maitea	Zer da gure ustez bakera? Zein hitzekin erlazionatzen dugu? Imagina dezakegu gerran dagoen herralde batean bizi garela? Zer esango genioke egoera hau bizi duen pertsona bati? Idatz diezaiogun eskutitz bat ezagutzeko!


Ariketan klik egingo dugu fitxan sartzeko.

The screenshot shows the ALBOAN website interface. At the top, there are navigation tabs for 'MUNDUKO HIRITARRAK', 'BILAKETA', 'EMAITZAK', 'GATZAKEN KONPONKETA', and '2. zikloa'. The main content area is titled 'Ezagutzen dudan eta ez dudan lagun maitea'. It includes a 'Deskribapena' section with a text box containing the lesson description, an 'Itarria' section with a text box, a 'Gaiak' section with a text box, and a table with 'Arloak' and 'Zikloa Eta Adina'. The 'Arloak' section lists 'Hizkuntza eta literatura' and '50 minutuko saio bat'. The 'Zikloa Eta Adina' section lists 'DBH 2.zikloa / 14-16 urte'. The 'Materialak' section lists 'Fitxa 1.1'. At the bottom, there is a 'Aktibitatea burutzeko fitxa osagarria' section with a text box.

Jarduerak material osagarria badu, material horretan sartu ahal izango gara. Adibidearekin jarraituz, behealdean ezkerrean klik egingo dugu, 1.1 fitxan, hura deskargatzeko.

OHARRA: gerta daiteke fitxa Interneteko nabigatzailean irekitzea.





2. **Bilaketa azkarra:** adina, gaia eta zer arlo landu nahi den aukeratu daiteke, eta kategoria horiek in erlazioz atutako jarduera guztiak ikusi.

Hezkuntza-zikloa aukeratu du: DBHko 2. zikloa, 14-16 urte.

Curriculum-arloa aukeratu du: arlo guztiak.

Gaia aukeratu du: Gatazkak eta bakea.

Titulua	Deskribapena
Errefuxiatzaileen ondorioak: gerra eta gatazka	Zer gertatzen da munduan milioika pertsonen bizirauteko beraien ebeak abandonatzea behartuak sentitzeke? Zer dago egoera hauek sortzen dituzten gatazka eta gerren atzean?
Emakumeak eta haurrak babesleku eta segurtasun eske	Zergatik dira emakumeak eta haurrak errefuxiatu populazioaren artean kalteberenak? Zerri egin behar diete aurre? Zer egiten dute beraien alde gobernuak? Eta legeak? Eta erakundeak?
Declaration	Erfaziorik ba al dago giza duintasuna eta giza eskubideen artean? Gure buruan galdetu ahal diogu inoz zer dela eta urratzen diren giza eskubideak? Zer pentsatza bultzatzen gaitu abestiak zentzu honetan? Zeintzuk dira eguneroko biztan, ikasgelan edo auzoan, errespetatzen ez diren
Osatu gabeko esaldiak	Badakizu zein herrialdeetan dauden 40 miloi pertsona osasun zerbitzurik gabe? Europako zein herrialdeetan dago jendea erabilerari bat ulertzeko gauza ez dena? Jarduera honetako datu batzuek harritu egingo zaituzte...
Ezagutzen dudan eta ez dudan lagun maitea	Zer da gure ustez bakea? Zein hitzekin erlazionatzen dugu? Inajina dezakegu gerran dagoen herrialde batean bizi gairela? Zer esango genioke egoera hau bizi duen pertsona bati? Idatz diezalogun eskutitz bat ezagutzeke!
Why?	Erfaziorik ba al dago giza duintasuna eta giza eskubideen artean? Gure buruan galdetu ahal diogu inoz zer dela eta urratzen diren giza eskubideak? Zer pentsatza bultzatzen gaitu Tracy Chapman -en abestiak zentzu honetan? Zeintzuk dira eguneroko biztan, ikasgelan edo auzoan,
Identify the conflict	Gaur egungo zenbait gatazka global nahiz lokal buruzko azterketa egin behar dute ikasleek, helburu nonekin: gatazka, haren jatorria, hartan parte-hartzaile direnak eta balizko konponbideak identifikatzea.
The Irish problem	Irlandako arazoa ezagutzen dugu? Gatazkan parte-hartzen duten aldeetako bat defendatu beharko bagenu, zein argumentu proposatuko genituzke? Eta nolako jarrerak garatu beharko genituzke gatazkan parte-hartzaile biltzeko?

Jarduera aukeratuzean, bilaketa sinpleak (lehenengo bilaketa-aukerak) eman digun deskribapen bera aurkituko dugu.

3. Orriaren eskuinean, gai-multzo hauek agertzen dira: **Munduko hiritarrok; gure munduko protagonista gara, Erakusketak eta gidak, eta Ikus-entzuzko materiala**. Hor bilatu behar da jarduera, jardueraren “iturria” atalean jartzen duenaren arabera. Kasu honetan, jardueraren iturria hau da: “Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara”, gatazken konponketaren atala.



“Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara” aukeratuko dugu.

**ALBOAN** bilaketa

azala > menu > munduko hiritarrak

Proiektuaren aurkezpena munduko hiritarrak:

**"Munduko hiritarrak. Gure munduko protagonistak gara"** diziplina aniztetarako hezkuntza-proposamen bat da eta herritartasuna kontzeptua lantzea du helburu. Proiektua zuzendua dago ikastetxeei (irakasleak, ikasleak, gurasoak, irakasle ez diren langileak) eta aisialdi taldeei. Proposamen transbersala da eta ondorioz ikasgaietako edukietatik abiatuz herritartasun konprometitu eta solidarioa eraikitzea bideratzen du.

Proposamenak hiru gai lantzen ditu eta hauen denboralizazioa malgua da: Eskubideak eta betebeharrak, Parte-hartzea, Gatazken konponketa.

Proiektuaren helburua da lehenengo kontzientzia hartzea herritar bezala pertsona guztiok ditugula eskubideak eta betebeharrak betetzeko eremu desberdinetan. Izan ere, guztiak ez diren eskubideak gutxi batzuen pribilegioak bilakatzeko dira. Hori honela izan ez dadin, beharrezkoa dugu inplikatzeko eta errealtatea aldatzeko parte hartzea. Eremu ezberdinetan parte-hartzeak laguntzen du guztiok mundu honetako protagonista bilakatzeko eta mundu hau justu eta duinagoa izaten pertsona guztientzako. Ordea, parte hartzen dugunean, pertsona ezberdinekin harremanetan jartzen gara; interes eta behar ezberdinak dituzten pertsonekin. Ondorioz, batzuetan gatazka sortzen dira. Hori dela eta, proiektuaren azken fasean gure jarrerak, gaitasunak eta mekanismoak landuko ditugu gatazka maneiatzen ikasteko eta horiek aukera bilakatzeko.

**Diziplina aniztetarako proposamen honek errekurtso ezberdinak eskaintzen ditu, gai bakoitzerako:**

- Oinarritzko dokumentua proposamenerako
- Girotzeko hamar kartel
- Curriculumera egokituak dauden lau karpeta proposamen didaktikoekin: lehen Hezkuntza, bigarren Hezkuntza eta batxilergoa
- Jokoa (lehen hezkuntzarako bat) bat
- Bideoa eta hau lantzeko gida didaktikoa hainbat jarduerekin (bigarren hezkuntza eta batxilergorako)

**Galak ondorengoak dira:**

- Eskubideak eta betebeharrak
- Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea
- Gatazken konponketa**

Gatazken konponketa aukeratu dugu. Hurrengo pantailan, aukeratu Bigarren Hezkuntza, 2. zikloa.

ALBOAN bilaketa

azala > menua > munduko hiritarrok > gatazken konponketa > 2. zikloa

**Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako bigarren ziklorako proposatutako hezkuntza materiala**  
Hainbat curriculum-alorretatik jarduera batzuk proposatzen dira erantzukizuna lantzeko; izan ere, herritar gisa gatazkak modu baketsuan bideratzea eta konpontzea dagokigu.

Arloak	Jarduerak
<b>Matematika:</b> Sentimenduek gatazka batean duten garrantzia azpimarratzen da, eta bitartekaritzarako teknika kuantitatiboen eta kualitatiboen balioa zalantzan jartzen da.	<b>Problematogramea</b> Zientzia eta gizartea gatazkan
<b>Natur zientziak:</b> Gal polemiko bati buruzko iritziz desberdinetatik abiatuz, helburua desadostasunak elkarriketaren bidez konpontzen sailatzea da.	<b>Khandiako energia-gatazka</b> Elkagai transgenikoak
<b>Arte hezkuntza:</b> Hainbat adierazpen artistiko lantzen dira haiekiko egin diren interpretazio desberdinenak positiboki baloratzeko, eta ez arazo-iturri gisa.	<b>Orbanaren Artea desalfiztatu</b>
<b>Hizkuntza eta literatura:</b> Estabaida edo elkarriketa antolatzeke hainbat estrategi proposatzen dira, gatazkak konpontzean komunikazioak duen baloreaz jabetzeko.	<b>eragitzen dutan eta ez dutan lagun maitae</b> <b>ere leand da</b>
<b>Ingelesa:</b> Gatazka errealei buruzko azterketan eta arazoan, zergatien eta aldean identifikazioan oinarrituz, eman daitezkeen irtenbideei buruz hitz egitea proposatzen da.	<b>Identify the conflict</b> <b>The Irish problem</b> <b>Gap filling</b>
<b>Gizarte-zientziak:</b> Gatazka armatuei buruzko azterketa hartzen da abiapontuztat, bake-lorpenen mapa egiteko.	<b>Juduak eta palestinarrek</b> Gatazka armatuen mapa
<b>Musika:</b> Lan desberdinen analisiaz eginez, musikak bake-mezuen ingurte gisa duen funtzioaz hausnartzen da.	<b>Gora heherak</b> Diktariaren musika
<b>Erlijioa:</b> Bibliako gatazkak aztertzen dira, eta haiek tratatzeko bideak bilatzeko eskatzen da.	<b>Jesusen bizirikako gatazkak</b> Gatazkak Elizaren hasapenetan

MUNDUKO HIRITARROK

Honetaz gain, informazioa eta proposamen gehiago aurki ditzakezun web orriak dituzu.

Proposamen didaktikoaren aurkibidean, jarduera bilatu, eta aukeratu dugu.

### 2.3. Jatorrizko zer baliabide erabili dira jarduera-gida egiteko?

Jarraian, ALBOANen baliabideen **aurkezpen-laburpen** bat egingo dugu; baliabideen artean daude material honetarako aukeraturako jarduerak (fitxa baikoitzeko *iturriak* atalean agertzen direnak dira).

#### MUNDUKO HIRITARROK; GURE MUNDUKO PROTAGONISTAK GARA

Diziplina anitzeko proposamen bat da. Hiritartasunaren gaia lantzen du, eta irakasgaiko programako edukiekin lotzeko aukera ematen du; horrenbestez, hiritartasun arduratsua eta solidarioa eraikitzen laguntzen du.

**Hiru gai-multzo** ditu: Eskubideak eta betebeharrak, Hiritartasun unibertsala lortzeko parte-hartzea eta Gatazken konponketa.

- **“Eskubideak eta betebeharrak”:** giza eskubideak gizaki guztien eskubide direla defendatzen da; pertsona guztien eskubideak ez direnak gutxi

batzuen pribilegioak dira. Eskubideek berekin betebeharrak dakartzatela ere defendatzen da, ezinbesteko korrelazioa baitago haien artean, eta eskubideak nahiz betebeharrak familian, ikasgelan, auzoan eta hirian ditugula ere bai.

- **“Hiritartasun unibertsala lortzeko parte-hartzea”**: antolatutako pertsona askoren ahaleginari eta parte-hartzeari esker lortu dira gauza gehienak gizartean. Horretarako, eremu hurbilenetan (familia, auzoa, hiria) parte hartzen hasi behar da, eta ohartu munduan parte hartzeko modu ugari daudela. Parte-hartzearen bidez, gure munduko protagonistak izan gaitzke, eta guztiontzako mundu duin eta bidezkoago bat eraiki dezakegu.
- **“Gatazken konponketa”**: gatazkak gizarte-bizitzako eta giza harremanetako berezko elementutzat hartzen dira. Ez dugu haien beldur izan behar, aberastu egiten gaituen aniztasun batetik sortzen baitira batzuetan. Gatazkak aukera ona dira pertsonak eta gizarteak hazteko eta hobetzeko. Komeni da gatazka eta indarkeria bereiztea. Gatazken arrazoiak, moldeak eta horiek modu baketsuan konpontzeko moduak ere aztertzen dira, gatazkak aukera bihurtzeko.

### UNITATE DIDAKTIKOAK

Elkartasuna sustatzen duten eduki, prozedura eta jarrerak eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak lotzen dituzten hainbat gai jorratzen dituzte. Unitate didaktikoak irakasgai zehatzetara begira sortu badira ere, ondo moldatzen dira beste curriculum-arloekin eta prestakuntza-eremuekin.

### 3. Jarduera-gida

Jarraian, Etika- eta gizarte-hezkuntza irakasgaiaren osagarri gisa erabil daitezkeen jarduerak aurkeztuko ditugu. Unitatearen atalen arabera ordenatuta daude, horrela, ikasleekin landu nahi dugun atalaren arabera aukeratu ahal izango dugu jarduera.

#### 1. Atala. Eduki komunak

**a. Norberaren eta besteen sentimenduez ohartzea, gatazkak eztabaidaren eta negoziazioen bidez konpontzea.**

- **Gatazkak eztabaidaren eta negoziazioaren bidez lantzea. Bitartekaritza.\***



**Gatazkak trukatzea**



Erraza egiten zaigu ikaskide batek bizitako gatazka baten konponbideak ematea? Eta besteen aholkuak jasotzea? Nola sentitzen gara? Erraza da ikaskide baten egoeran jartzea?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Elkartasuna/Gatazken konponketa.



50 minutu.



## Bake-liderrak



Zer egin dezakezu zure eguneroko bizitzan sortutako gatazka baten aurrean? Zein da mundu guztia pozik egoteko modurik onena? Nola konpondu dira zenbait gatazka historian zehar? Zer paper izan dute pertsona batzuek gatazka horietan?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Gatazkek eta bakea/Gatazken konponketa/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutu.

b. Inguru hurbileko edo mundu osoko arazozen gaineko eztabaidak prestatzea eta aurrera eramatea, gaurkotasan-gaiei eta etika- eta gizarte-auziei buruzkoak, dauden jarrerak eta alternatibak kontuan hartuta.



## Internet: Informazioa edo desinformazioa?



Interneten bada adierazpen-askatasunik? Zilegi da nahi duenak nahi duena sarean jartzea? Nola arautu liteke hori? Nork erabaki behar du hori guztia?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara; Eskubideak eta betebeharrak.



Komunikabideak eta Internet/Eskubideak eta betebeharrak/ Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutuko bi saio.





### Afrikatik gutuna



Inguru hurbileko edo mundu osoko arazoen gaineko eztabaidak prestatzea eta aurrera eramatea, gaurkotasun-gaiei eta etika- eta gizarte-auziei buruzkoak, dauden jarrerak eta alternatibak kontuan hartuta.



“Lurra begi-bistan” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet/Giza garapena eta garapen jasagarria.



50 minutu.



### Gure iritziak eztabaidagai



Posible da gure iritzia inposatu gabe eztabaidatzea? Eztabaida batek izan behar dituen elementuak ezagutzen al ditugu? Zer-nolako jarrerak behar dira mundu guztiak bere iritzia adierazteko aukera izan dezan eta batzuen eta besteen iritziak gerturatu daitezen? Eztabaida dezagun immigrazioaren inguruan.



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet/Pertsonen mugimendua/ Arrazakeria eta aurreiritziak.



50 minutu.



### Zure txanda da



Badakigu sortzen besteen txanda errespetatzea eta parte-hartzaile guztiek parte hartzea sustatzen duen eztabaida bat?  
Hona hemen horretarako estrategia bat.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara,  
Gatazken konponketa.



Gatazken konponketa/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutu.

### c. Gaurkotasuneko gai edo gertaera baten inguruan komunikabideek emandako informazioaren azterketa konparatiboa eta ebaluazio kritikoa.



### Afrika prentsan



Afrikaren zer irudi ematen digu prentsak?  
Informazio hori errealitatearekin bat dator?



“Lurra begi-bistan” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet/Aniztasuna.



50 minutu.



## Informazioa, iritzia eta aurreiritzia



Azter ditzagun linguistikoki immigrazioaren inguruko bi kazetaritza-testu. Beren iritziak transmititzeko estrategiaren bat erabiltzen dute autoreek?



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet/Pertsonen mugimendua/  
Arrazakeria eta aurreiritziak.



50 minutu.



## Egunkaria irakurtzen



Zer-nolako informazioa jasotzen dugu Afrikaren inguruan?  
Nork ematen digu albistearen berri? Non kokatzen dira  
informazio-agentzia horiek?



“Lerro artean irakurtzen” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet.



40 minutu.



## Inkesta



Zer-nolako tratua ematen zaie etorkinei egunkarietan? Immigrazioarekin zerikusia duten albisteak aztertuko ditugu, ea zer kontatzen diguten.



“Lerro artean irakurtzen” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet/Arrazakeria eta aurreiritziak/  
Pertsonen mugimendua.



50 minutu.

### d. Bidegabekeriez eta desberdintasunez ohartzea. Bizimodu bidezkoagoak bilatzeko eta izateko nahia. Ikastetxean bertan zein kanpoan, elkartasunezko proiektuetan parte-hartzea.



## Gure ikastetxearen iritzia



Zer parte-hartze eremu susta ditzakegu gure ikastetxean? Ikastetxeko argitalpen edo irrati-programaren bat sor genezake ikastetxeko ikasleek, irakasleek eta gurasoek parte har dezaten?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara,  
Parte-hartzea.



Komunikabideak eta Internet/Eskubideak eta betebeharrak/  
Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutu.

## 2. Atala. Nortasuna eta alteritatea. Hezkuntza afektibo-emozionala

a. Norberaren nortasuna, askatasuna eta erantzukizuna. Gizakiaren galderak. Desberdintasun pertsonalekiko errespetua.

- Bestelako bizimoduekiko eta pertsonen eskubideekiko errespetua.\*



### Nire esperientzia



Zerbait berezia sentiarazi dizun esperientziarik gogoratzen duzu?  
Hitzen edo ikurren bidez adierazteko gai gara?  
Nola sailkatuko genuke izandako sentrazio bakoitza?  
Ikur baten bidez irudika genitzake?



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



50 minutu.



### Istorioak kontatuko ditugu



Pertsona baten argazkia ikusita, gai gara haren bizitzaren historia imajinatzeko? Pertsona baten irudia nahikoa da aurreiritziak sortzeko?



“Lerro artean irakurtzen” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Aniztasuna.



50 minutu.

## b. Inteligentzia, sentimenduak eta emozioak. Pertsonen arteko harremanak. Pertsonen arteko gatazkak konpontzeko indarkeria erabiltzea baztertea.



### Koloreen hizkuntza



Zer iradokitzen digute Gaugin-en koadroko koloreek eta formek? Koloreek badute esanahirik? Sentimenduak eta gogo-aldarteak adierazten dituzte?



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



50 minutu.



## Sinboloak eta emozioak



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoaren 6. jarduerako irudiekin jarraituz, ikasleek honako obra hauetan definitutako sentsazioak eremu semantikoaren arabera sailkatu behar dituzte: Lorenon Bernini, Salvador Dalí, Jan Van Eyck, Monet, Friedrich eta Vivaldi.



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



50 minutu.



## Hunkitzeko artea



Obra bat entzutean edo koadro bati begiratzean, gure zentzumen guztiak dauzkagu martxan? Egin dezagun proba. Hamaika emozio eta sentsazio transmitituko dizkigute!



“Zentzumenak irakasle” unitate didaktikoa.



Sentimenduak eta pertsonen arteko komunikazioa.



50 minutu.



## Ezagutzen dudan eta ezagutzen ez dudan lagun maite hori



Zer da bakea eta zer baliorekin lotzen dugu hitz hori?  
Imajina dezakegu gure bizitza gudan dagoen herrialde batean?  
Zer esango genioke egoera horretan bizi den pertsona bati?  
Pertsona hori ezagutzeko, idatz diezaiozun eskutitz bat!



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara,  
Gatazken konponketa.



Gatazkak eta bakea/Elkartasuna.



50 minutu.



## Problematograma



Arazoak konpontzeko sistema bat imajina dezakegu?  
Nola neurtuko genituzke sentimenduak?  
Nolako eragina dute sentimenduek arazo bat konpontzean?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara,  
Gatazken konponketa.

















Gatazken konponketa.



50 minutu.



## Horrez gain

 <b>Orbana paperean</b>	 Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara.
 <b>Artea deszifratzen</b>	 Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara.
 <b>Hegoaldeari buruz dugun irudia</b>	 Zentzumenak irakasle unitate didaktikoa.
 <b>Hitzak, emozioak, sentrazioak</b>	 Zentzumenak irakasle unitate didaktikoa.
 <b>Nire kontakizuna</b>	 Zentzumenak irakasle unitate didaktikoa.
 <b>Ibiltarien musika</b>	 Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara.
 <b>Identify the conflict</b>	 Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara.

### 3. Atala. Teoria etikoak. Giza eskubideak

a. Giza eskubideak giza portaerarentzako erreferentzia unibertsal gisa. Gizarte- eta politika-eskubideak. Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Giza eskubideen eboluzioa, interpretazioak eta defentsa eraginkorra.



**Teknologia eskura izatea: Gure eskubideak ezagutzeko aukeraren adierazle bat**



Giza garapenaren indizearen aldagaiak (gizakiek jaiotzean duten bizi-itxaropena, hezkuntza-lorpenak eta biztanleko benetako BPGa) nahikoak dira garapena neurtzeko, edo beste faktoreren bat gehituko zenukete? Zein? Teknologiaz baliatzeko aukera izatea ere garrantzitsua dela uste duzu?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Giza garapena eta garapen jasagarria.



50 minutuko bi saio.



## Declaration



Badago harremanik giza eskubideen eta giza duintasunaren artean? Galdetu diogu inoiz gure buruari zergatik urratzen diren giza eskubideak? Zer eskubide ez dira errespetatu ohi klasean edo auzoan?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Gatazkak eta bakea/Elkartasuna.



50 minutuko bi saio.



## Why?



Ba al dago harremanik giza eskubideen eta giza duintasunaren artean? Galdetu al diogu inoiz gure buruari zergatik urratzen diren giza eskubideak? Hori guztiari dagokionez, zer pentsarazten digu Tracy Chapman-en abestia? Zein dira klasean edo auzoan errespetatu ohi ez diren eskubideak?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Gatazkak eta bakea/Elkartasuna.



50 minutuko bi saio.



### **Etxeko animaliak: eskubideak eta zaintza**



Gauza ederra da etxeko animalia bat izatea, baina, zer-nolako erantzukizunak hartu behar ditugu etxeko animalia bat izatea erabakitzean? Animaliak lagun onak dira, baina gure aldetik ahalegin handia eskatzen dute; ados zaude?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak.



50 minutu.

## **b. Desberdintasun sozialak eta kulturalak. Intolerantziari, bidegabekeriari eta bazterkeriari aurka egitea.**



### **Etorkinei buruzko musika**



Zer diote inguruko abestiek emigrazioaren inguruan? Mezuak transmititzeko garrantzitsua da musika? Uste duzu abestien letren bidez hel daitekeela bestela ezin den pertsonengana?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Arrazakeria eta aurreiritziak/Gizarte-bazterketa/Kultura-artekotasuna.



50 minutuko bi saio.



## Musika-aniztasuna, kultura-aniztasuna



Musikak komunikatzeko balio dezake? Zer-nolako gauzak komunika ditzake? Nola? Badirudi modan dagoela musika-motak nahastea, eta musika mestizoa gero eta gehiago baloratzen eta onartzen da mundu mailan. Pertsonekin ere hori gerta liteke? Zergatik?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Eskubideak eta betebeharrak/Aniztasuna.



50 minutuko bi saio.

## 4. Atala. Etika eta politika. Demokrazia. Balio konstituzionalak

### a. Demokrazia eta hiritarren parte-hartzea.



#### Zertarako?



Norbaiten edo zerbaiten alde azaldu behar dugu? Bidezkoa edo bidegabea iruditzen zaigunaren inguruan iritzia eman behar dugu? Pertsona ezagunek bidegabekeriak publikoki salatu beharko lituzkete, nahiz eta politikan ez jardun, edo “hori beste batzuen kontuak dira” esan beharko lukete? Mario Benedettiren poemaren analisia.



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Eskubideak eta betebeharrak/Komunikabideak eta Internet.



50 minutuko bi saio.



## Har ezazu parte aurrekontuan



Zer iruditzen zaizkizue partaidetza-aurrekontuak proposamen eta parte hartzeko modu gisa? Bideragarria izango litzateke zure ikastetxean mota horretako aurrekontuak antolatzea? Zer urrats egin beharko genituzke eta nola antolatu beharko genuke? Eta guk erabaki beharko bagenu? Nola ezarriko genituzke lehentasunak?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Parte-hartze soziala eta borondatezko lana/Eskubideak eta betebeharrak.



50 minutuko bi saio.



## Komunikabideen bidez



Zer kanal eskaintzen dizkigute komunikabideek guk parte har dezagun? Animatuko gara horiek erabiltzera taldeka gaurkotasuneko gai baten inguruan iritzi-artikulu bat idatziz? Nola jakinaraziko dugu gure mezua komunikabideetan?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Komunikabideak eta Internet/Eskubideak eta betebeharrak/ Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutuko bi saio.



## Proiektatzen



Zer behar du gure auzoak edo hiriak? Egingo dugu garapen-plan bat antzemandako gabeziak kontuan hartuta? Nola antolatuko gara informazioa bilatzeko, erantzukizunak banatzeko eta denok proiektuan parte hartzeko?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Gatazken konponketa/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutuko hiru saio.



## Baliabideen direktorioa



Zer elkarte sozial eta kultural daude gure hirian? Direktorio bat sor dezakegu horiekin guztiekin?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Elkartasuna/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutuko bi saio.



## Belarriak erne



Zer iradokitzen digute *Seguridad Social* eta *Celtas Cortos* musika taldeen parte-hartzeari buruzko abestien letrek? Erritmoak eta melodiak eragiten dizuete sentsaziorik? Koherenteak al dira zabaldu nahi duten mezuarekin?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Elkartasuna/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutu.



## Gure musika



Hiritarren parte-hartzea sustatzen duten zer abesti ezagutzen ditugu? Zenbat dira? Zenbateraino transmititzen ditu musikak mundu bidezkoago bat bultzatzen duten mezuak?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Parte-hartzea.



Elkartasuna/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutu.



## 5. Atala. Egungo munduko arazo sozialak

### a. Globalizazioa eta garapen-arazoak. Boterea eta komunikabideak.



#### Cati Rodriguez-en kasua



Kolonizatzeke modu berria dira multinazionalak? Badakigu herrialde pobretuetan nola funtzionatzen duten? Zer dira *maquilak*? Nola eragiten du horrek herrialdeen garapenean?



“Lurra begi-bistan” unitate didaktikoa.



Kolonizazioa/Deskolonizazioa/Berdintasunezko merkataritza-harremanak/Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa.



50 minutuko bi saio.



#### Zer da garapena?



Herrialdeak garatu/azpigaratu edo Iparraldeko/Hegoaldeko gisa sailkatzea zaila da? Zer da garapena? Zer inpliketzen du kontzeptu horrek?



“Lurra begi-bistan” unitate didaktikoa.



Garapenerako lankidetzeta/Giza garapena eta garapen jasangarria.



50 minutu.

**b. Hiritartasun globala. Giza garapen jasangarria. Lankidetza.**  
**Giza eskubideen defentsarekin konprometitutako mugimenduak.**

- **Ingurumen-krisia: garapen jasangarriaren aldeko borroka.\***



### Oreka ekologikoa



Badakizu ekosistemak zer diren eta nola funtzionatzen duten?  
Horien zatiren bati uko egin diezaiokegu edo bizirauteko  
beharrezkoa dugu oreka mantentzea? Zergatik?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara,  
Eskubideak eta betebeharrak.



Ingurumena, birziklatzea, kutsadura.



50 minutuko bi saio.



### Buruarekin eta bihotzarekin kontsumituz



Zer irizpide ditugu erosketak egitean? Markak edo kalitateak  
erakartzen gaitu gehiago? Gure kontsumitzeko modua aldatzen  
badugu, munduan zerbait aldatuko da?



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Giza garapena eta garapen jasangarria.



50 minutu.



## Ginkana izugarria



Ingurumena garrantzitsua dela uste duzu? Zergatik? Nahikoa zaintzen dugu? Zer gertatuko litzateke ingurune naturalak suntsituko bagenitu eta animalia gehienak desagerraraziko bagenitu? Zer egin dezakegu datozen belaunaldiek ere ingurune horiekin goza dezaten?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Eskubideak eta betebeharrak.



Ingurumena, birziklatzea, kutsadura/  
Giza garapena eta garapen jasangarria.



Egun bat.



## Zientzia eta gizartea gatazkan



Zer dira elikagai transgenikoak? Europan, zer neurritan ekoizten eta kontsumitzen dira? Zer proportzio dago produktu transgenikoen ekoizpenaren eta produktu biologikoen ekoizpenaren artean? Zer diozue lortutako datuei buruz?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Osasun-hezkuntza: Droga-mendekotasunak, elikadura, hiesa/Kontsumo arduratsua, kontsumismoa.



50 minutuko bi saio.



## Elikagai transgenikoak



Zer iritzi dugu elikagai transgenikoen inguruan? Bilatuko dugu informazio gehiago hartutako jarrera arrazoitu ahal izateko?  
Zer ikasi duzue klasean sortutako eztabaidatik?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara,  
Eskubideak eta betebeharrak.



Osasun-hezkuntza: Droga-mendekotasunak, elikadura, hiesa/  
Kontsumo arduratsua, kontsumismoa/Gatazken konponketa.



50 minutuko bi saio.



## Sarean barrena



Egingo dugu ikastetxean proposamenen bat gure kontsumo-ohiturak aldatzeko? Bilatu eta aukeratu gustukoena duzuenaren. Sarea erabiltzea proposatzen dugu, informazio-iturri pribilegiatua baita. Taldeka, kanpo-zorrari aurka egiteko GKEk bultzatutako kanpainak eta ekimenak aurkitzean datza jarduera.



“Zor zoroa” unitate didaktikoa.



Kanpo-zorra/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutu.

c. Gatazka armatuak eta haiek konpontzeko nazioarteko komunitateak egiten duena. Bakea mantentzeko, ezartzeko eta sendotzeko lanak. Defentsa bakearen zerbitzura. Bakearen kultura.



### Juduak eta Palestinarrak



Zer dakigu juduen eta palestinarren arteko gatazkari buruz? Gatazka horren inguruan lan egiten duen pertsona edo elkarteren bat ezagutzen dugu? Egin dezagun ikerketa bat gatazka hobeto ezagutzeko, eta aurkez diezaiogun klaseari. Badago arrazoi onargarririk giza talde bat jazartzeko irizpide etniko, erlijioso, ideologiko edo bestelakoengatik?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Gatazken konponketa/Gatazkak eta bakea.



50 minutuko bi saio.



### Gatazka armatuen mapa



Berlingo harresia erori zenetik, zer gatazka armatu daude munduan? Zergatik piztu dira gatazka horiek? Zer bake-prozesu eraiki dira?



Munduko hiritarrok; gure munduko protagonistak gara, Gatazken konponketa.



Gatazken konponketa/Gatazkak eta bakea.



50 minutuko hiru saio.



### Ikerketa militarra



Zientzialariek ikerketa militarretan dirua eta denbora inbertitu beharko lukete? Badugu informaziorik ikerketa militarreko inbertitzen diren baliabideen inguruan? Badakigu lurreko minak zer diren? Zer ondorio dituzte?



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Ikerketa zientifikoa/Gastu militarrek/Parte-hartze soziala eta borondatezko lana.



50 minutuko bi saio.

## 6. Atala. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna

### a. Pertsoneen duintasuna. Berdintasuna askatasunean eta aniztasunean.



### Jar zaitez haren lekuan



Bizitzako eremu askotan emakumeak eta gizonak desberdin tratatzen direla ohartzen gara (lan-eremuan, esate baterako)? Ohituta gaude diskriminazio-egoera horietara? Kontrako sexuaren lekuan jarriko gara froga egiteko.



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Baterako hezkuntza/Gizarte-bazterketa/Arrazakeria eta aurreiritziak.



50 minutu.

**b. Emakumeen diskriminazioaren kausak eta eragileak.  
Eskubide-berdintasuna eta benetako berdintasuna.**



**Emakumea eta publizitatea**



Publizitatean, emakumeen zer irudi ematen da?  
Benetako irudia da? Irudi horrek emakumeen  
genero-bereizkeria eragiten du? Zergatik?



“Lerro artean irakurtzen” unitate didaktikoa.



Komunikabideak eta Internet/Baterako hezkuntza/Kontsumo  
arduratsua eta kontsumismoa.



50 minutu.



**Tratu txarra historian zehar**



Nolako eragina izan dute teoria zientifikoek emakumeen  
diskriminazioan? Gaur egun egoerak hobera egin du?  
Nola eraiki dezakegu edo nolakoa izango litzateke  
genero-berdintasuna duen gizarte perfektu bat?



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Baterako hezkuntza/Eskubideak eta betebeharrak/  
Arrazakeria eta aurreiritziak.



50 minutu.

## 7. Atala (Nafarroa). Gizarte kulturantzuna

### a. Nortasuna kulturala. Nortasun indibiduala eta kolektiboa.



#### Arraza kontzeptua



Nola erabili izan da arraza kontzeptua historian zehar?  
Horrek eraginik izan du talde etniko batzuen diskriminazioan?  
Zer teoria edo estereotipo ditugu oraindik ere?



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Ikerketa zientifikoa/Aniztasuna/Arrazakeria eta aurreiritziak.



50 minutuko bi saio.



#### Zuk zer egingo zenuke?



Zer arrazoi erabiltzen ditugu gaur egun kolektibo batzuen diskriminazioa eta bazterketa justifikatzeko? Ideia, aurreiritzi eta estereotipo horiek badute oinarri zientifikorik?



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Gatazken konponketa/Aniztasuna/Arrazakeria eta aurreiritziak.



50 minutuko bi saio.





### Logika-hausnarketa



Zer ohitura eta bizimodu dituzte Afrikako hiriek?



“Lurra begi-bistan” unitate didaktikoa.



Aniztasuna/Kultura artekotasuna.



50 minutu.



### Afrika koloretan



Afrikako etniaren bat ezagutzen dugu? Haien bizimoduak eta ohiturak ikertuko ditugu eta ikasitakoa gainerako ikaskideei aurkeztuko diegu.



“Lurra begi-bistan” unitate didaktikoa.



Aniztasuna/Kultura-artekotasuna/Giza garapena eta garapen jasangarria.



50 minutuko bi saio.

## b. Desberdintasun kulturalak eta immigrazioa.



**Paper-aldaketa**



Nola uste duzu ikusten gaituztela beste kulturetakoek?  
Gure kulturaren eraginez besteekiko aurreiritziak ditugula  
uste duzu?



“Zientzia eta e(rr)eboluzioa” unitate didaktikoa.



Kultura-artekotasuna/Aniztasuna/Arrazakeria eta aurreiritziak.



50 minutu.

## 4. Material osagarrien eranskina

Jarraian, **ALBOAN**en beste baliabide batzuen erreferentziak aurkezten ditugu. Ez daude “Hezkuntza-materialak” CD-DVDan, baina Etika- eta gizarte-hezkuntza irakasgairako lagunak izan daitezke.

Horietako batzuk webgunean eskuratu daitezke, formatu digitalean; beste batzuk, berriz, formatu fisikoa dutenez, Bilboko, Iruñeko, Donostiako eta Gasteizko egoitzetan aurkituko dituzu.

[www.alboan.org](http://www.alboan.org) webgunean, Etika- eta gizarte-hezkuntzan aplikatu daitezken jarduerak aurki ditzakegu honako baliabide hauen artean:

### Kanpaina-materialak:

#### • Milurtekoko Garapenaren Helburuak

- 0. koaderno. Jarduerak:
  - Milurtekoko Helburuak lortzea... gure erantzukizuna da
  - Mugi zaitez... Milurtekoko Helburuak denon esku daude
- 1. koaderno. Jarduerak:
  - Munduko pobreziaren kontzeptu-mapa
  - Zuzendariari eskutitza: pobreziari buruzko egia
- 2. koaderno. Jarduerak:
  - Munduko eskolatze-desberdintasunaren kontzeptu-mapa
  - Consolataren lekukotasuna
- 3. koaderno. Jarduerak:
  - Gure hezkuntza-dekalogo
  - Zer da generoa?
  - Genero-berdintasunaren inguruko kontzeptu-mapa
  - Nire iritzia eman

- Genero-berdintasunerako ikasiz eta desikasis
- Estereotipoak
- 5. koaderno. Jarduerak:
  - Amen osasunaren kontzeptu-mapa
  - Gertatzen dena ezagutzera emanaz
  - Kasu konkretu bat... Peru
  - Aurreko astelehenean Sonia hil zen
  - Milurtekoko Helburuen errealitatea
  - Ez gaitezen ezer egin gabe geratu
- 6. koaderno. Jarduerak:
  - Bidean dauden komunikabideak
  - Hiesaren kontzeptu-mapa
  - Jakin dezagun gehiago GIBari buruz
  - Adierazi sentitzen duzuna
  - Bidezko sexualitatea
  - Mugitu
- 7. koaderno. Jarduerak:
  - Uraren eskubidearen inguruko kontzeptu-mapa
  - Ura... hain arrunta ez den ondasun bat
- 8. koaderno: Jarduerak:
  - Kanpo-zorrari buruzko kontzeptu-mapa
  - Berdintasunik eza, herrialde aberatsen eta pobreen arteko bidegabekeriaren emaitza
  - Zentzua duten letrak
  - Pobreziaren aurkako aliantza... posiblea da

### Material didaktikoak

- **Etorkizun-aukerak**
- Jarduerak:
  - Posible da errefuxiatuentzat etorkizun-aukerak sortzea?
  - Zer egiten ari gara errefuxiatuekin?

- Zer egiten du GKE batek?
- Nola antolatzen da ekintza edo proiektu bat?
- Iraganeko, oraingo eta etorkizuneko aukerak
- Adingabeak muturreko egoeratan; haur soldaduak
- Liberiako gatazken zuhaitza
- Emakume afrikar presidenteak?

Sarean edo CD-DVDan dauden argitalpen guztiak paperean ditugu gure **egoitzetan (Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean)**. Gainera, erakusketak eta gure Baliabide Zentroetako beste material batzuk mailega ditzakezu.

Argitalpen honetan Etika -eta gizarte-hezkuntza irakasgairako jarduera-gida bat aurkezten dugu, DBHko 4. mailako irakasleek erabili dezaten. Material osagarri hau Hezkuntza Materialak CD-DVDarekin osatzen da.

